

Iñigo Landa Ijurko

## SOROETA ETA SARROETA

Soroeta eta Sarroeta leku-izenen arteko identifikazioa zuzena ez dela demostratzea da artikulu honen asmoa. Soroeta Altzaren lehen aipamen historikoarekin batera loturik agertzen zaigu eta Sarroeta, bestalde, Urumearen ertzean dagoen auzoaren izena da eta historiografian, Ricardo Izaguirre<sup>1</sup> historialariak egindako lanari jarraituz, bata eta bestea leku bera direla onartu ohi da. Jakin badakigu toponimoak, izaki bizidunen antzean, sortu, itxuraldatu, batzutan bere eremua zabaldu, txikitu, lekuz aldatu eta hil ere egiten direla. Aurrerago ikusiko dugun bezala, bi toponimoek jatorri eta bizitza ezberdinak izango dituzte: Soroeta zaharrena eta aipamen bakarra duen bitartean, Sarroeta beranduago sortuko da eta bizitza luzeago eta objektu gehiago izendatuko ditu, bien arteko antza azaleko izanik.

Historian gero eta atzerago joan ahala zaildu egiten da historialariaren lana. Are gehiago Altzaren kasuan. Datu gutxi eta solteekin lan egin behar izaten dugu-eta, hauetako datu asko leku-izenak. Baldintza zail hauetan historialariak eta hizkuntzalariak, elkarlanean, datu horiei ahal den etekin handiena ateratzen ahalegindu dira:

---

<sup>1</sup> IZAGUIRRE, Ricardo de: *El Urumea y los puertos donostiarras. En torno a los orígenes de San Sebastián*. Pasajes de San Pedro: Editorial Vasconia; 23-25 or.; Idem: *Notas a la Donación de Leire: Contribución al estudio de los orígenes de San Sebastián*. Donostia: Imprenta de R. de Leizaola, 1931; Idem: "Historia y toponimia donostiarras: El primer grupo de documentos referentes a San Sebastián de Hernani". In *Homenaje a Don Julio de Urquijo e Ibarra*. Donostia: BRSVAP, III, 1951; 335-406 or.



Sarroeta eta Sorroeta lekuen kokapena

hitzen esanahia zehaztuz, leku-izenak kokatuz eta interpretatuz, garaiko gizarte eta ekonomiari buruzko informazioa eskuratzen... Alabaina, toponimia informazio-iturri aberatsa zein labainkorra da. Izan ere, toponimiaren azterketaren laguntzaz hainbat prozesu historiko hobeto ezagutu ahal izateko baliagarria izan bada, beste askotan ere iritzi okerrak edo funtsik gabekoak finkatzeko balio izan baitu. Arrisku hau saihesteko modu bat toponimoak historian zehar aztertzea da, une bakoitzeko tes-tuingurua eta egokitzen zaizkion aldaketak arretaz begiratuz. Prebentzio hau kon-tuan hartuaz ekin diogu gure saioari.

### Soroeta: “cum tota sua pertinentia et cum totas suas pescarias”

Nafarroako Gartzia Ramirez erregeak Igeldon, Urumean, Ariaz-en eta Aralarren zeuzkan bere propietateekin batera, “Alça et Soroeta cum suis pertinentiis” eman ziz-kion Iruñeko elizari 1141. urtean<sup>2</sup>. Urte batzuk beranduago<sup>3</sup>, agiri berri batean pro-pietate horiek zeintzuk ziren zehazten ziren beraien izenak emanez. Guri interesa-tzen zaigun pasarteari begiratzen badiogu, honela dio agiriari: “Alza et Soroetha cum tota sua pertinentia et cum totas suas pescarias”<sup>4</sup>.

Testu honetan aipatzen diren lekuak identifikatzen eta kokatzen aspaldi ahale-gindu zena Ricardo Izaguirre izan zen eta berak egindako interpretazio saioa, oro har, ontzat eman da gai honetaz arduratu direnen artean<sup>5</sup>.

Izaguirreren iritziz, “Alza et Soroetha” elkarrekin agertzeak bat bestearen ondoan zeudela adierazi nahi zuen eta “pescarias” hitzak ur bazterrean kokatzen zituen. Azken honek, hain zuzen ere, eraman zuen Izaguirre Oiartzun eta Errenterian koka-turik dauden Altza-Soroeta baserri bikotea baztertzer eta Urumearen ondoan ikus-

<sup>2</sup> Arg.: MARTINEZ DIEZ, Gonzalo: *Guipúzcoa en los albores de su historia*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1975; 25. dok, 204. or.: “*Dono et concedo totum quod in Iheldo Bizchaya habeo, cum tota sua pertinentia que mihi pertinent uel inuenire potuerint, et Hurumea similiter cum tota sua pertinentia, et Alça et Soroeta cum suis pertinentiis, et todos meos cubilares quos in Ariaz inuenire potuerint, et Gorostica Zaharra cum tota sua pertinentia, et Saueria Olatze et Zamiola cum omnibus suis pertinentiis, et quicquid in Arelarre de meo inuenire potuerint.*”

<sup>3</sup> Agiri honen data ez dago batere argi. MARTINEZek agiri hau 1141-1150 urte bitartean kokatzen du (op. cit., 206) eta BARRENAk, berriz, 1178. urtean, Santxo erregearen garaian. (BARRENA, Elena: *La formación histórica de Guipúzcoa*. Donostia: E.U.T.G.-Mundaiz, 1989; 431 or.)

<sup>4</sup> Arg.: MARTINEZ (op. cit., 206. or.): “*dono Domino Deo et Sancte Marie de Pampilona: Orio et Hieldo cum tota sua pertinentia, scilicet Loičtaran, Erratzaual, Saria, Urdauide, Bunieta, Dagandiburu, Lussarbe, Iringuren, Irarue, Aenetzia, Lordibeguia, Loizta. Iuchita, Berarratza, Badotzularraburu, Amossorara, Zalburcaicoa, Iturriozagua et Hurumea, Arainiuar, Lastaola, Legarralde, Zuloeta, Ammunola, Mentauio, Anziz, Gierala, Muez, Macurssola, Guaragarze, Urtarazando, Izarrlegui, Apparren, Eualiuia, Alza et Soroetha cum tota sua pertinentia et cum totas suas pescarias. Et in Ariatz: Goizeta-Iaznue et totos meos cubilares quos ibi habeo uel habere debeo. Et in Aralarre: Saueriolatze, Zamilola, Gorostiaga Zaarra, Arriestarieta, Atelecotia, Ezquiasso Ataria, Barrunecoa, in Argoiena, cum tota sua pertinentia que pertinere debent.*”

<sup>5</sup> AGUIRRE SORONDO, Antxon: *Tratado de Molinología*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1988; 453. or.; BARRENA, op. cit.; MARTINEZ: op. cit., 118. or.; MUJIK, Luis Maria: *Euskal Toponimiazko Materialeak*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1989; TELLABIDE, Josu: *Donostiako Toponimi Erregistroa / Registro Toponímico Donostiarra*. Donostia: KUTXA Gizarte eta Kultur Fundazioa, 1995; LANDA, I.; ETXEBESTE, J.C.: “Altzako Erdi Aroa izenez izen”. In *Hautsa Kenduz II*. Altza: Altzako Historia Mintegia, 1994; 69-84 or.

ten zuen Altza-Soroeta bikotearen alde egitera. Altza, gaur egun ezagutzen dugunaren baino eremu txikiago baten izena izango zen eta Soroeta, Altzaren auzoa zen Sarroeta izenarekin identifikatu zuen, gaur egungo Martutenen.

Soroeta-Sarroeta identifikazioa egiteko erabili zituen argudioak, ordea, izen honek historian zehar izan dituen aldaeren arteko antzekotasunean oinarritu zen eta dokumentu sorta bat eman zuen non antzekoak diren baina jatorri eta kokapen ezberdina duten toponimoak zaku berean sartu baitzituen (Sorroeta eta Sarrauta/Sarroeta). Izaguirrek berak aipaturiko dokumentuak irakurtzea nahikoa da Sorroeta eta Sarroeta bi leku ezberdin direla ondorioztatzeko eta Soroetarekin duten funtsik gabeko antza ez dela nahikoa Soroeta Sarruetan kokatzeko.

### **Sorroeta: “monte y tierra jaral”**

Esan bezala, Izaguirrek berak aipatutako dokumentuak kontsultatzea nahikoa da garbi ikusteko Sorroeta Ulian kokaturik dagoen mendialdea dela, Mirakruzgainan dagoen Laguras (gaur egun Labeas izenarekin ezaguna) etxearen lur-sail handi bat. Dokumentuarekin jarraituz jakingo dugu Sorroeta, Moneda eta Arnaobidao etxeen lurrekin eta Donostiako herri lurrekin muga egiten zuela eta bere jabeek 1535. urtean mendi honen jabetza partzuergoa bihurtu zutela hogeitazitan banatuz: *“quedamos de bos bender un monte e tierra jaral de la cassa de Laguras nombrado Sorroeta que es de quatro mil pies de mansanos con que la dicha tierra e monte se repartiase entre veinte casas de las de la dicha tierra de Alza contada por una de ellas la dicha casa de Laguras.”*<sup>6</sup> Zati hauetako bat, Gomistegiko jabeak erosi zuen, Juan Martinez de Berastegui, alegia. Honen semeak, izen berekoa, herentziaz jaso zituen Sorroetaren jabetzaren zati hori aitaren partetik, eta Sarruetako erroten jabetza bere lehengusina zen Maria Perez de Berasteguiaren partetik, La Torre maiorazkoaren sortzailea eta seme-alabarik gabe hil



<sup>6</sup> “Sancho de Larrina-k eta Ana de Laguras-ek Berastegui lizentziatuari eta beste kideei Sorroeta mendia salzen diete.” (Donostia, 1535-10-25). Donostiako Udal Agiritegia, San Milian eta Villalegre markesaren fondoa (hemendik aurrera SMVMA), 63. kutxa, 490. zenbakia. Lur-sailaren azalera, Balzolaren taulak erabiliz, Sorroetak 137.320 m<sup>2</sup> neurtuko luke. (BALZOLA: *De las medidas superficiales de Guipúzcoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1917).

zena. Sorroeta eta Sarroeta izenen arteko antzekotasunak, eta bi jabetza hauek San Millango markesarenak izateak, bi izenak nahastera eramán zuten Izaguirre.

### Sarrauta: “borze/vecino”, “molino” eta “termino”

Sarrauta izenaren aipamenik zaharrena XIV. mendearen lehen erdialdekoa da eta Joan Sarrauta izeneko Donostiako burges bati dagokio eta mende horretan zehar dokumentuetan behin eta berriro agertuko zaigu:

- 1302. urtean Donostiako kontzejuaren ordezkari gisa aurkeztu zen Iruñeko gotzainaren aurrean: “... *segund los honrados e nuestros muy amados en Jesucristo hijos don Joan de Sarrauta y don Pero Yceña, borzses de la dicha villa de San Sebastian, nos fizieron entender por sí e por el dicho concejo...*”<sup>7</sup>.
- Bi urte beranduago, gaskoiz idatzitako dokumentu batean, Joan de Sarrauta berriro agertuko zaigu oraingo honetan palazio baten transmisio baten lekuko bezala: “...*ey dat fermes en Per Arnaut d’Uhua, en Johan de Sarraute, borzes de Sent Sebastián.*”<sup>8</sup> (“...berme gisa ematen ditut on Per Arnaut d’Uhua, on Johan de Sarraute, Donostiako burgesak.”). Ez da kasualitatea, beraz, agirietan birritan elkarrekin ikusten ditugun Sarrauta eta Uhua<sup>9</sup> burgesak, inbertsioak egiteko orduan ere, Donostiaren inguruetan, Urumearen ertzetan, bat bestearen ondoran lurra erostea, gaur egun Uba eta Sarroeta bezala ezagutzen ditugun lekue-tan.
- Izen bera aurkituko dugu 1344. urteko beste agiri batean tolarre baten jabe bezala Donostian: “*hedifficar en otro lugar ssolar a par açerca del trullar que es de don Johan Sarrauta vezino de la dicha villa del vn estado*”.

Data honetatik aurrera dokumentuetan ez dugu aurkitu Donostialdean abizen hau duen biztanlerik. Abizenaren jatorriak, ordea, Gipuzkoako ekialdeko kostaldean dauden beste abizen asko bezala, jatorri gaskoia dauka. Gaskoiz “muino” edo “mendixka altua” esan nahi du eta, hain zuzen ere, Gaskonian da gaur egun ere Sarrauta (edo Sarraute, frantses kutsuz idatzirik) abizena kopuru handiena biltzen duen eskualdea.

<sup>7</sup> Arg.: GORRICHIO, Julio: “La carta partida de don Miguel Pérez de Legaria sobre la primicia y los beneficios de San Sebastián (1292-1302)”. In *Boletín de Estudios Históricos sobre Sab Sebastián, (1982-1983), Homenaje a J. Ignacio Idígoras, I.*; 145-146. or.; MARTINEZ, op. cit., 99. or.. Dokumentu hau argitaratuta dago transkripzio-ezberdintasun batzuekin argitalpen hauetan

<sup>8</sup> Arg.: CIERBIDE, Ricardo: “A propósito de un texto gascón de San Sebastián de 1304” In *Homenaje a Julio Caro Baroja*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1986; 875. or.; Juan de Sarraute Donostiako prebostearen lugartenientea izan zen 1304. urtean (TENA, M<sup>a</sup> Angeles: *La sociedad urbana en la Guipúzcoa doñera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*. Donostia: Instituto Dr. Camino de Historia Donostiarra, 1997; 400 or.).

<sup>9</sup> Pedro Arnalt de Hua, Donostiako alkatea izan zen 1292, 1302, 1304 eta 1309 urteetan. (TENA, op. cit., 589-590 or.)

<sup>10</sup> Arg.: BANUS, J.L.: “Prebostes de San Sebastián”. In *BEHSS*, 7 (1973); 201-202. or.:

Eta abizena galdu bazen Sarrautak hainbat mendetan iraun zuen leku-izena beza-la. Lehen aldiz 1489. urteko Donostiako udal ordenantzetan agertuko zaigu: “...*que todos los albures e otros pescados que mataren con redes en puerto grande e costa de hasta Santa Clara hasta Zorriola e puerto chico hasta **Zarraota**...*”<sup>11</sup>. Hau da, Zurriolatik Sarroetaraino, Donostiari dagokion Urumea ibaiaren zatia.

Ia ehun urte beranduago, Maria Perez de Berastegui 1579. urtean egin zuen testamentuan, aurkituko dugu berriro: “*e la casa e caseria llamada Marijuandegui o Zelailuze con sus manzanales tierras y pertenecido y la mitad de los molinos de **Zarrauta** con su presa e huerta y tierras jarales e pertenencias y el pedazo de tierra jaral que tengo en el dicho termino de **Sarrauta** junto a tierras de Juanes de Blancaflor.*”<sup>12</sup> Testamentu honek garrantzia berezia izango du berau oinarria izango delako urte bat beranduago Maria Perez de Berastegui berak La Torre familiaren maiorazkoa sortzeko. Denboraren poderioz Sarroetan zituzten baserriek Torre abizena hartu zuten izentzat; alegia, zutik diraun Torrua eta 27 Poligonoaren sarreran zegoen Torrua-zar baserriak.

Sarrauta, beraz, errota bat izendatzeko ez ezik, errota hau dagoen “*termino*”-a edo espazioa izendatzeko ere erabili zen. Ikus dezagun nola agertzen zaizkigun bi izaera hauek, errota eta espazioa, dokumentuetan:

- 1581. urteko salmenta batean non Maria de Zandategui, Miguel de Oquendoren izenean, Sarrauta deituriko “*terminoan*” etxe bat bere tolare eta sagastiekin erosi baitzuen<sup>13</sup>. Agiri honetan erosi berri duten lurren mugak esaten dutenean argitzen digute zeintzuk diren Sarruetako erroten jabeak. Bat, gorago ikusi dugun bezala, Maria Perez de Berastegui eta, bestea, Sebastian de Urnieta: “...*por una parte con mançanales y tierras de la casería de Martín de Laçon e por la otra los molinos de los herederos de Sevastian de Urnieta y doña Maria Perez de Berastegui defunta e su presa e por delante el rio de la Hurumea...*”
- 1588. urteko beste agiri batean: “*Yten asi bien ynventario la mitad de un lagar y dos pedaços de mançanales nombrados Chirstobaldegui, que son junto el molino de **Ssarrauta** que han por linderos por una parte mançanales de Martin Perez de Laçon y por la otra el dicho molino y por medio del camino que passa a las casserias de Antondegui y Liçarragategi que la hiviéron por compra*”<sup>14</sup>. Agirian aipatzen diren

---

<sup>11</sup> “Ordenanzas municipales de donosita confirmadas por los Reyes Católicos: (77) Sobre lo que han de dar los trayneros para la puente de Santa Catalina” (Baeza, 1489-7-7) ANABITARTE, Baldomero: *Colección de documentos históricos del Archivo Municipal de la M.N. y M.L. Ciudad de San Sebastián*. Donostia: Imprenta de la Unión Vascongada, 1895; 63. or.

<sup>12</sup> SMVMA, 19. kutxa, 58. zenbakia. Arg.: LIZASO, Domingo de: Nobiliario de los Palacios, casas solares y linajes nobles de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa. Bilbo: Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, 1983 (1901); t. II, 39-40 or.

<sup>13</sup> SMVMA, 64. kutxa, 530. zenbakia.

<sup>14</sup> “Miguel de Oquendo kapitainaren alarguna den Maria de Zandategui andrearen jabetzen inventarioa.” SMVMA, 27. kutxa, 328. zenbakia. Arg.: TELLECHEA, J. Ignacio: “Maria de Zandategui, viuda de Oquendo”. In *BEHSS*, 22 (1988); 183 eta 184 or.

lekuen izenak gaur egun izen horrekin ezagutzen diren komentuaren eta bi baserrien izenak dira.

- Urte gutxi batzuk beranduago ere, 1596. urtean, beste dokumentu batean: *“un mançanal tierras e perteneçido en juridiçion de la dicha villa en el termino que llaman de la Rivera que se atiene a mançanales de Martin de Galarraga la casa y heredades dichas de Ayenaz que son en juridiçion de la dicha villa en el termino llamado Sarrauta notorias y conosidas...”*<sup>15</sup>. Aienas baserria 27 Poligonoaren barruan zegoen, orain dela hamabost bat urte bota zuten arte.

Laburbilduz, esan dezakegu Donostian XIV. mendean bazegoela gaskoi jatorriko Sarrauta abizeneko burges bat Urumearen ondoan kokaturik zeuden errota eta lursail bat zeuzkana eta jabetza hauek haren izena hartu eta gorde zutela, baita jabea aldatu edo desagertu ondoren ere.



Sarrueta

### Sarroeta: etxea eta “partido”


Denbora pasa ahala, Sarrauta izenak metamorfosi bat izan zuen; izan ere, XVIII. mendean eremu honek Sarroeta aldaera hartu zuen. Aurreneko aldiz 1703. urtean aurkituko dugu dokumentaturik, San Martzial parrokiaren Arrosarioaren kofradiaren etxe zerrendan<sup>16</sup>. Ezagutzen dugun lehen aipamenetik aurrera, aldaera hau finkatuko da bai etxea izendatzeko baita Urumea ibaiaren ondoan dagoen Altzako parte hori izendatzeko ere. Bi adibide:

- 1731. urtean Hernaniko portuaren errentamendu-zerga jasotzen duen agirian hiru aldiz aipatzen da Sarroetako portua. Hemen bat jasoko dugu: *“Por todo*

<sup>15</sup> Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, PT 101, 29 or.

<sup>16</sup> Arg.: ELEJALDE; ERENCHUN: *Alza y Astigarraga*. Donostia: CAM, 1974; 75. or.

### 1764. urtean “Partido de Sarroeta” osatzen zuten etxeak





*genero de maderamen de construcción de casas, sin distinción de pieza alguna, debe llevar dicho arrendador cinco maravedís de vellón por cada codo reducido a sesenta y cuatro onzas de grueso siendo la conducción desde el puerto de Hernani al de Santa Catalina o al llamado de Sarroeta en Loyola.”<sup>17</sup>*

- 1764. urtean, Urumeako zilegi-mendiek ematen zuten produktuen banaketan parte hartzeko eskubide zeukaten etxeen zerrendan, Altxa “partido”-tan banaturik agertzen zaigu: *La plaza, Arriaga, Miravalles, Amoreder, Sarroeta, Sarategui, Errera, La calzada*. Hauek dira Sarroeta osatzen zuten etxeak: “**Partido de Sarroeta**: *Antondegui, Lizarrategui, Mirandaburu, Pirotegui, Purustundegui, Parada de arriba, Garciategui, Zapiain, Zapiain iuso, Marijuandegui, Irasmoe de abaxo, Artolatategui, Tolazar, Aingelu de abaxo, Aingelu de arriba, Lazunenea, Cathalinchorenea, Sarroeta, Balerdine, Poleaguillereña.*”<sup>18</sup>

Sarrauta Sarroeta bihurtzearen arrazoi zehatza ez dakigu, alabaina aldaketa honek badauka erreferentzia adierazgarri bat gaskoia eta euskara elkarren ondoan erabiltzen diren eskualdetan, Zuberoan eta Nafarroa Beherean, batez ere. Orpustan<sup>19</sup> hizkuntzalariak dio *-eta* atzizkiak *-o-* baldin badauka aurretik *-aute* bukaera bihurtzen dela. Baieztapen honen adibide herri hauen izenak ditugu: Berroeta/Berrauta, Arrueta/Arraute, Soroeta/Sohüta... Hauek eta dauden beste adibideetan ikusten da aldaketa hau euskal izena gaskoia bihurtzerakoan gertatzen dela baina alderantzizkoaren adibiderik ez dugu ezagutzen, Soroetaren kasua bezala, alegia, gaskoieratik euskarara, hain zuzen ere.



*“Caserío Sorrua”, “SAN SEBASTIAN .- POSICIONES DEL EJERCITO Y DE LOS CARLISTAS EN LOYOLA. (CRÓQUIS DEL SR. JUSUÉ.)”* izenburua duen laminaren zatia. (Arg.: ORIBE CANTERA, Aniceto: *100 años al servicio de Guipúzcoa. La Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián (1879-1979)*. Donostia: Donosti-Aurrezki-Kutxa, 1979; 164. or.)

<sup>17</sup> IZAGUIRRE, op. cit., 17. or.

<sup>18</sup> Altxako Udal Agiritegia, 8. dok., 66 eta, 67 or.

<sup>19</sup> ORPUSTAN, Jean B.: *Toponymie basque. Noms des pays, communes, hameaux eta quartiers historiques de Labourd, basse-Navarre et Soule*. Bordele: Presses Universitaires de Bordeaux., 1991 ; 10 eta 57. or. Iritzi berekoa da Irigoyen hizkuntzalariak. (IRIGOYEN, Alfonso: *Sobre toponimia del País Vasco Norpirenaico*. Bilbao: Universidad de Deusto, 1990; 81 eta 82 or.)

### **Konklusioak**

Soroeta eta Sarroetaren inguruan argitu beharreko bi gai jarri ditugu mahai gainean, bat etimologiekin zerikusirik daukana, eta toponimoen kokapenarekin bestea. Lehenengoari dagokionez, Izaguirrek jatorri etimologiko bera ikusten zien Soroeta, Sorroeta, Sarrauta, Zarraota eta Sarroetari. Azaldu dugunaren arabera, hau ez da guztiz zuzena. Sarroeta ez da Soroetaren aldaera bat, Sarrautarena baizik, eta Sarrauta argi eta garbi erlazionatuta dago gaskoi jatorria duen pertsona baten abizenarekin. Beste aldetik, Sorroetak etimologikoki, agian, Soroeta izenaren jatorri bera izan lezake, baina Sorroeta mendialdea da eta ez dago Urumearen aldean, Ulian baizik, Laguras (Labeas) baserriaren ondoan.

Soroetaren kokapenari dagokionez, Izaguirrek arrazoia izan lezake Altza eta Soroeta elkarren ondoan eta uraren ertzean egongo zirela esaten duenean. Honen arabera, Soroeta Urumean egon zitekeen, baita beste lekuren batean ere. Egia da, Sarrueta (Zarraota) toponimoaren lehen aipamena Urumean egiten zen arrantzarekin erlazionatuta dagoela eta honek, izenen arteko antza dela medio, Soroetaren “pescarias”-ekin lotzen diola. Baina Urumea ez da arrantza egiteko gune apropos bakarra, Ulian Illurgitako senaia eta Pasaiaiko badian Herrera eta Molinao leku egokiak ziren arrantzan jarduteko. Gainera, eta hipotesi gisa, pentsa daiteke erregeak katedralari eman zion jabetzen zerrenda egin zuenean, orden bat jarraitu zuela, ekialdetik mendebaldera: Igeldo, Urumea, Altza eta Soroeta. Hau hala baldin bada, Soroeta Altzaren ondoren egongo litzateke, Pasaiaiko badian edo Ulian, eta ez lehentxeago, Sarroetan. Dena den, hau ziurtatzeko daturik ez dago eta etorkizunean egin daitezkeen ikerketen zain geratu behar dugu behin betiko zerbait esateko.